

Prentsa oharra

Nota de prensa



‘Donostia berdea’ hiriko parke eta lorategiei buruzko informazio-puntuak ostiralean irekiko ditu ateak

- Parkeko sarreraren ondoan dago espazio hori, Kristinaeneko zainzailearen etxea zen eraikinean, eta hiriko eta hiri-inguruko berdeguneetako jardueri eta ezaugarriei buruzko informazioa emango du.
- *Donostia berdea* irailaren 11ra arte egongo da irekita, ostegunetik igandera.

Bigarren urtez jarraian, *Donostia berdea* informazio-puntua irekita egongo da udan, hara inguratzen direnei hiriko parkeei eta berdeguneei buruzko informazio garrantzitsu eta erabilgarria emateko. Kristinaenea finkako garai bateko zainzailearen etxean dago informazio-puntua, eta, haren bidez, ideiak eman nahi dira aire zabalean planak egiteko, familiarekin eguna pasatzeko, lagunekin buelta bat emateko edo Donostiako txoko berde eta ezezagunenak ezagutzeko.

Puntua ostegunetik igandera egongo da irekita, uztailaren 1etik irailaren 11ra.

Ekologiako zinegotzi Marisol Garmendiak adierazi duenez, “Donostiak badu ezagutu beharreko altxor berde bat. Donostiar askok ez dute ezagutzen hiriko parke eta natura-guneen multzoa, eta haiei eta bisitatzeko gaituztenei parke eta berdegune horiek ezagutzera etortzeko iradoki nahi diegu, baita oharkabean pasatzen diren eta turismo-gidetan ateratzen ez diren parke eta berdeguneak ezagutzera etortzeko ere”.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Informazio-puntuan ez dira jardungo soilik Aieteko, Miramarreko eta Kristinaeneko parkeez, baizik eta baita Altzako Basoerdi, Larres eta Arriaga parkeez ere. Besteak beste, informazio hau emango da: horietako bakoitzean zer aurki dezakegun, nola goza dezakegun haietaz gizalegez, bai eta horietan zer kultura-jarduera programatzen diren ere, bakoitzak nortasun propioa baitu.

luz, 1018 pertsona hurbildu ziren *Donostia berdea* informazio-puntura; horietatik % 59,1 emakumeak, eta % 40,9 gizonak. Egunean 40 pertsona inguru hurbildu ziren informazioa eskatzera, eta jende gehien uztailaren 11n etorri zen. Gehienak donostiarrak ziren (% 69,8), eta, ondoren, Gipuzkoakoak (% 12,7) eta Espainiako beste toki batzuetakoak (% 10,1).

Hiriko parkeetan jarduerak programatzea

Donostia berdea informazio-puntuan, hiriko parkeek eskaintzen dituzten aukerei buruzko informazioa emango da, bai eta udan parke horietan programatutako kultura-eskaintzari buruzko informazioa ere. Eskaintza horretan, Kristinaenea fundazioak aire zabalean antolatzen dituen zinema-proiektzioak dira nagusi. Aurten, lehen aldiz, hiriko bost parketan izango dira proiektzioak. Horrez gainera, familientzako eta haurrentzako jarduera hauek ere eskainiko dira:

Kristinaenea

- Cristina Almodóvarren *Mugak* erakusketa (barnean). Ekainaren 24tik irailaren 11ra.
- Woody Allenen *Lotia* filmaren proiektzioa, euskaraz (kanpoan). Uztailaren 7an, 22:30ean.
- *Dukeen ondarea* familia-tailerra (kanpoan). Uztailaren 9an, 17:00etan (euskaraz) eta 18:30ean (gaztelaniaz).
- *Lau urtaroak Kristinaenean* familia-tailerra (kanpoan). Uztailaren 17an 11:30ean (gaztelaniaz), eta uztailaren 24an 11:30ean (euskaraz).

Urumeako ibai-parkea

- Zinema aire zabalean. Ekainaren 30ean, 22:30ean.
- Wes Andersonen *Fantástico Mr. Fox* filmaren proiektzioa (gaztelaniaz)

Arriaga parkea

- Zinema aire zabalean. Uztailaren 1ean, 22:30ean.
- Monty Python-en *La vida de Brian* filmaren proiektzioa (gaztelaniaz)

Salvador Allende parkea

- Zinema aire zabalean. Uztailaren 8an, 22:30ean.
- Monty Python-en *La vida de Brian* filmaren proiektzioa (gaztelaniaz)

Ulia

- Muskerrak Natura Ingurumen Elkartearen *Basoen bizi* erakusketa (barnean). Uztailaren 1etik irailaren 11ra.

Prentsa oharra

Nota de prensa

- Julian Urkiola erlezainaren hitzaldia (barnean). Uztailaren 9an, 11:00etan.
- Baso-bainua (kanpoan). Uztailaren 9an, 09:30ean.
- Txangozatu familientzako eta haurrentzako jarduera (kanpoan). Uztailaren 31n, 12:00etan eta 13:00etan.

Urgull

- Haurrentzako jarduerak eta eskulanak egunero (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra), 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.
- Gainera, asteartero eta asteazkeno, 18:00etan, jarduera bereziak:
 - > Uztailak 5 [+5 urte] Ongi etorri Natur Txokora!
 - > Uztailak 6 [+5 urte] Urgulleko koloreak
 - > Uztailak 12a [+5 urte] Naturaren altxorraren bila
 - > Uztailak 13 [3-6 urte] Amalur, Urgullgo zaindaria.
 - > Uztailak 19 [+5 urte] Iritsi da zirkua!
 - > Uztailak 20 [+5 urte] Sakelako baratzeak
 - > Uztailak 26 [+5 urte] Birsortu
 - > Uztailak 27 [3-6 urte] Lorez lore, erleak bezala
 - > Abuztuak 2 [+5 urte] Zomorro zirkus
 - > Abuztuak 3 [+5 urte] Aire aire
 - > Abuztuak 9 [+5 urte] Natura zentzu handiz
 - > Abuztuak 10 [3-6 urte] Natura kapitaina, superhero bat Urgullen
 - > Abuztuak 23 [+5 urte] Hondarrezko eskulturak
 - > Abuztuak 24 [+5 urte] Urgulleko piratak
 - > Abuztuak 30 [+5 urte] Intsektu erraldoiak
 - > Abuztuak 31 [+5 urte] Agur-jaiak

Hiriko parkeei buruzko argitalpena

Amaitzeko, informazio-puntuan eskuragarri egongo da *Donostia berdea* argitalpena, hiriko parkeei, lorategiei eta berdeguneei buruzko informazio praktikoa biltzen duen liburuxka. Argitalpena euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dago, eta Kristinaeneko informazio-puntuan zein Donostia Turismoren bulegoetan eskura daiteke.